

**2016KO ABENDUAREN 22AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN
AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bia

HILABETEA: Abendua.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJIK
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2016ko azaroaren 29ko akta onartzeko proposamena.

2016ko azaroaren 29ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- AURREKONTUA. 2017. urterako aurrekontu orokorra onartzea.

Alkatea jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du eta lehenik eta behin aurrekontua onartzeko prozedura azaldu du, hau da:

“1.- Alkateak Aurrekontu Proiektuaren azalpena egiten du.

2.- Eztabaidatzeko eta bozkatzeko prozedura azaltzen du, hau da:

- Emendakinak aurkezteko momentua, eztabaidatzen hasi aurretik dela adierazten du. Emendakinak idatziz aurkeztu beharko dira.
- Hitz egiteko txanda ematen du emendakinak aurkezteko, ordezkari gutxiena duen taldeari hitza emanez.
- Taldeei hitza ematen zaie, aurkeztutako emendakinen eta Alkateak aurkeztutako aurrekontu proiektuaren gainean beraien iritzia emateko.
- Norbaitek Aurrekontuarekiko emendakin osoa aurkezten badu, bozkatu egingo da eta onartuko balitz, Aurrekontua Alkateari itzuli beharko litzaioke, taldeekin adosteko eta beste Aurrekontu Proiektu berri bat aurkezteko.
- Emendakinak banan-banan bozkutzen dira.
- Onartzen badira, Aurrekontu Proiektuan aurreikusiko dira. Ez badira onartzen, ez.
- Bigarren aldiz, hitz egiteko txanda ematen da.
- Alkateak aurkeztutako Aurrekontu Proiektua, onartutako emendakinak aurreikusiz bozkutzen da.

3.- Alkateak bozketaren emaitza azaltzen du eta adierazten du, Aurrekontuari hasierako onespena eman zaiola eta 15 eguneko epean jendaurrean jarriko dela, erreklamazioak aurkezteko.

4.- Erreklamazioak aurkezten ez badira, behin betiko onartura geratuko da eta indarrean sartu ahal izateko, kapituluka Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.”

Jarraian proposamenaren berri eman du, hots:

“Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko, abenduaren 19ko, 21/2003 Foru Arauaren 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetza honek 2017 urterako Aurrekontu Orokorra osatu du. Hori dela eta, Udaltzataren onespenerako aurkezten da ondorengo akordio proposamena:

Lehenik.- 2017 urterako Aurrekontu Orokorraren espedientea onartzea:

- Udalaren aurrekontu propioa: 16.126.933,06 €

- Fundazioa: Udal Kirolaren Erakundeko aurrekontua: 718.834,50 €
- Beasaingo Loinatz Musika Eskolako aurrekontua: 666.430,70 €
- Beasaingo Udal Euskaltegiko aurrekontua: 420.704,92 €
- Beasain Lantzen, S.A. likidazioan: 85.368,56 €
- Aurrekontu Bateratua 16.770.646,68 €
- Konpromiso-kredituak (2.018, 2.019, 2.020): 329.120,00 €

Bigarren.- Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araudia onartzea, Aurrekontu Orokorren edukiari buruzko 2. artikulua soilik aldatzen duena eta bestalde, Aldi Baterako Pertsonala Kontratatzeko Araudiaren II Eranskina luzatzen duena. Aipatutako luzapena mantenduko da, 2.017. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrek xedatzen dutenaren aurka ez doan heinean.

Hirugarren.- 15 egun Jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-betirako onartutzat emango da. Bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du dagokiona ebazteko."

Alkate jaunak, 2017. aurrekontua azaldu du eta honela adierazi du:

"Zorrari dagokionean, 2016. Urtean aurreikuspena zorpetze maila %3,56ra jaistea zen eta gauzatu da.

2017 urteari dagokionez, zorpetze maila hori, %3,41era jaistea da aurreikuspena.

Zorra, 3.695.389,55€koa da eta aurten 537.440,07€ amortizatzeko konpromisoa hartuko dugu. Beraz, geratuko den zor bizia, 3.157.949,48€koa da.

Lan ildo nagusiak / ardatzak:

Aipatu aurrekontua oinarri hartuta eta pertsonak izanik udal jardunaren ardatz nagusia, joan den urtean ezarri genituen lehentasun eta lan ildoei helduko diegu 2017an ere.

Gauzak horrela, gure helburu nagusiak izango dira:

1. Ekonomia eta enplegua sustatzea.
2. Gizarte ongizatea bermatzea.
3. Herriari bizia eta nortasuna emateko kultur jarduerak bultzatzea.
4. Herritarren ongizateari begira ere, auzoetan eta herriko puntu ezberdinetan beharrezkoak diren hobekuntzak egitea.

Guretzat lehentasunezko gaiak dira horiek herriak aurrera egin dezan eta lan ildoak mantenduko ditugun modu berean, 2016an martxan jarritako hainbat ekimenei jarraipena emango diegu 2017an eta legegintzaldi osoan zehar helburu horiek betetzeko.

1) Egun, oraindik, langabezia da dugun arazo larrienetako bat. Horren aurka neurriak hartu ditugu 2016an eta egoerak hobera egin dezan datorren urtean enplegu planak jarraipena izango du. Beasaingo langabezia tasa (%7,51), Gipuzkoa edota Euskadikoaren azpitik badago ere, ia 700 langabetu ditugu herrian eta horiei aukera berriak eskaini behar dizkiegu, horregatik, joan den urtean gauzatutako ekimenez gain beste arlo batzuk ere landuko ditugu datorren urtean.

2) Gizarte ongizatea bermatzea ere izango da gure lehentasunetako bat, horregatik gizarte laguntza, programa eta zerbitzuak bermatuko ditugu. Era berean, Beasain Lagunkoia programa, baratze sozialen programa edota Lonja Laket programa mantenduko ditugu.

3) Kultur jarduerak bultzatzea ere funtsezkoa da guretzat, geure nortasunaren adierazle direlako. Beraz, dantzan.eusekin sinatutako hitzarmenak, Igartza Musika Programak, Igartza bekak edota lehen aldiz aurten ospatuko diren Beasain kirol sariak jarraipena izango dute 2017an.

4) Herritarren ongizateari lotuta eta Beasain herri atseginagoa bihurtzeko helburuarekin, berritasunak izango dira datorren urtean, baina joan den urtean burututako zenbait egitasmok jarraipena izango dute, besteak beste, auzoetan eta herriko zenbait puntutan egindako hobekuntzek, mantenu lanek, espazio degradatuak berreskuratzeko KUDA planak, Bonberia eraikineko proiektuak, Zazpiturrieta kaleko berurbanizazioak, Olanar eraikineko egokitzen lanak, Plan Orokorren idazketak edota garbiketa lanak errekan.

Joan den urtean bezalaxe, aurten ere, oposizioak aurkeztutako proposamenekin osatu eta aberastu nahi izan dugu gaur onartzera gatozen dokumentua. Hain zuzen, 2016an oposizioak aurkeztu zituen 17 proposamenetatik, 13 onartuak izan ziren, dagoeneko 10 eginak daude eta 3 egite bidean.

Aurten ere hainbat proposamen jaso ditugu. Batzuk aipatzearren, EH BILDUK rokodromoaren egoera hobetzea, atzeritarren euskalduntzea sustatzeko proiektua abian jartzea proposatzen du eta alderdi sozialistak Murumendi eskolan hobekuntzak burutzea. Dena den, azpimarratu nahiko nuke, gobernuak zein oposizioak aurkeztutako proposamen askok, bat egiten dutela, guztiok ekintza antzekoak ditugulako gure agendetan txertatuak.

Hau esanda, aurten egin dugun bezala, aurrekontu proiektuan jasotako ekintza guztiak, gureak zein zuenak, guztiak, aurrera eramateko konpromisoa hartzen dugu, proposamen eta egitasmo guztiek helburu bera baitute: herriak aurrera egitea eta bertako bizi kalitatea hobetzea.

Oposizioaren eskutik jasotako eta onartutako proiektu berri batzuk aipatu ditudan arren, 2017an beste hainbat berrikuntza ere izango ditugu. Esanguratsuenak honako hauek:

- Goiz Alzheimer programa.
- Loinaz Futbol zelaia berriz aldatzea.
- Kirol instalakuntzetan hobekuntzak.
- Euskararen erabilera indartzeko programa berriak: 12-16 urte bitarteko gazteentzat hizkuntza errefortzu zerbitzua.
- Bizikidetzak sustatzeko ekimen ezberdinak, Baketik fundazioarekin elkarlanean.
- Harrera programa eta herriko gune larrien azterketa.
- Baserritarren azoka larunbatetan ezartzeko aukera, froga modura.
- Dolarea parkean eta parte-hartze prozesu baten bidez azpiegitura horren egokitzea.
- Energia eta ura aurrezteko kanpaina.
- Mugikortasun plana eta aparkaleku kopurua handitzeko proiektuak lantzea.

- Udal webgune berria: gardentasunaren aldeko urratsak emateko eta herritarrei modurik eraginkorrenean udal jardunari buruzko informazioa emateko.”

Alkate jaunak galdetu du ea norbaitek emendakinak aurkezteko asmoa duen.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, honelakoak aurkeztu dira:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros no vamos a presentar ninguna enmienda. Desde el partido socialista queremos hacer especial inciso en que nos hemos centrado en estudiar las necesidades laborales, económicas y socio culturales, que bajo nuestro punto de vista hoy demanda Beasain. Nosotros nos hemos centrado en contribuir el buen desarrollo de nuestro municipio haciendo aportaciones al equipo de gobierno. El proyecto de modificación del cesp  d de hierba artificial del campo de futbol de Loinaz, ayudar   a descongestionar el colapso de deportistas que hacen uso de estas instalaciones, contribuyendo al trabajo que hace la directiva de la Sociedad Deportiva Beasain y los voluntarios. En cuanto a las dem  s aportaciones que desde Alcald  a se han aceptado, como la del colegio Murumendi, apelamos a la palabra del Alcalde para la ejecuci  n de las mismas. Es la segunda vez durante mi trayectoria como concejal, que el partido socialista va a votar a favor de los presupuestos, y no quiero dejar pasar la ocasi  n para decir que en la primera, estando BILDU en el gobierno, cumplieron con todo lo acordado. Esta vez tambi  n vamos a votar a favor de los presupuestos y apelamos a la palabra del equipo de gobierno. Hay otras aportaciones presentadas por los dem  s grupos que nos gusta menos y hay otras que no nos gustan nada, pero consideramos que debemos centrarnos en lo positivo, para el buen hacer de todos ya que no se nos tiene que olvidar que esa es la tarea que tenemos encomendada. Por ello, siti  ndonos part  cipes de la buena voluntad de los tres grupos aqu   representados, para mejorar la calidad de vida de los ciudadanos y ciudadanas de Beasain, votaremos a favor de los presupuestos presentados por el equipo de gobierno.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Lehenik eta behin aipatu pixka bat prezipitatu iruditu zaigula aurrekontuak garai honetan ekartzea, plantila itxi gabe dagoenean. Egokia iruditzen zaigu 2016an onartu nahi izatea, baina aurrekontuak plantilarekin harreman zuzena duenez, dena batea eraman behar da. Orain arte behintzat, ni egon naizen bitartean dena batera ekartzen genuen eta egokiagoa da horrela izatea.

Hori alde batera utzita esan, gu gaur abstenitu egingo garela. Gure aldetik jarrera aldaketa bat edo lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Azkeneko bileretan, aurrekontuez hitz egiten egon garenean bi alderdien arteko normaltasun batera iristeko nahia azaldu dugu. Nik bizi izan ditudan azkeneko urteak ez dira izan inoren gustukoak, baina guk 2017ari begira konfiantza jarriko dugu gobernuan dagoen taldearengan, uste dugulako denon gerturatzea egon beharko litzatekeela, Santik zioen bezala, beasaindarren ongizateari begira.

Alkateak aurrekontuari egindako azalpenari buruz esan, gure ekarpenak aurrekontuan sartuta daudela, baina paperean jartzetik kanpo egunerokotasunean dago lana eta hor jarri beharko ditugu lehen aipatu ditudan jarrera aldaketa horiek, askotan aipatu dugun informazio falta etab. horiek konpontze aldera.

Aurrekontuan aurreikusitako eta zalantzan jartzen dugun garrantzitsuenetariko bakarra futbol zelaiaren belar aldaketa izango litzateke, guk hori diru-laguntzaren baitan utziko genukeelako. Diru laguntza jasoko bagenu ondo iruditzen zaigu hori gauzatzea, baina iritsiko ez balitz itxarotea dagoela uste dugu izan arte. Espero dugu denon hobe beharrez eta ados egonda aldaketa horrekin, diru laguntza iritsi eta 2017an aldaketa hori ematea. Guk egindako ekarpen nagusienak aipatze arren, Web orriaren eguneratzea, Dolare parkea eta Olaran inguruko parte-hartzea mahai gainean

jartzea izango lirateke, bizikleta eta mugikortasun plana nondik nora joateko berriro berraztertzea garrantzitsua iruditzen zaigu eta Usurbe antzokia gaur egungo legediari egokitzea, irisgarritasuna konpontzeko eta eman dezakeen aukera berriak aztertzea ere ontzat ematen dugu. Beraz, 2017a hobeagoa izango delakoan eta adierazitakoaren arabera, gu abstenitu egingo gara.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Egia da aurrekontuarekin batera plantilla onartu behar dela, baina denon artean lanketa egin behar dugu, zeren eta plantilla ez ekartzearen arrazoia, erretiro baten aurrean, lanpostuaren profila definitzea da eta baita ere kontutan izatea hurrengo urtetan emango diren erretiroen ondorioak. Udaletan eta gizartean ematen ari diren aldaketak kontutan izanda, sortu beharreko lanpostuaren profila zein izan behar den aztertu egin behar da. Ea hurrengorako etxeko-lanak egiten ditugun eta biak batera ekartzeko moduan egiten dugun.

Loinatz futbol zelaiaaren belarra aldatzeari buruzko zalantza aipatu da, Hitzez, bai Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Federakuntzak, esan digute ez dagoela eragozpenik heren bat jartzeko. Diru laguntzaren deialdia aterako da eta bide hori jorratu egin behar da, baina bitartean proiektua egiten hasi beharra dago eta udarako prest egon beharko luke. Egia da diru asko dela Udalak berak, jarri beharko balu baina Beasaingo futbol taldearen historiari begira, osasuntsu egotea ere ona dela. Ez da bakarrik kirolean erreparatu behar baizik eta direktibak azaldu duen gogoia jendea hartzeko. Nik uste dut futbol taldeak egindako eskaerari heldu beharko genioke nik behintzat aukera modura ikusten dudalako, Goierri Berri nesken taldeaz gain hamaika talde dituelako Beasain futbol taldeak eta ea 500 umeekin dabilelako. Aukera modura ikusten da eta nahiz eta lantzen ari kanpoko diru laguntzak jasotzea, guri iruditzen zaigu serio pentsatu beharko genukeela diru laguntzarik jaso ezean ere, proiektu hori gauzatzea, atzera bueltarik edukiko ez lukeelako.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH BILDU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA. Estatutuen aldaketaren onespina.

Alkatea jaunak (EAJ-PNV), proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Estatutuen aldaketa.

AURREKARIAK

I.- 2016-11-17ko datarekin Gipuzkoako Ur Kontsortzioak egindako errekerimendua, estatutuen aldaketa onartzeko eta ondoren hartzen den erabakia jakinarazteko eskatuz.

II.- 2016-12-19ko Idazkaritzako aldeko txostena.

LEGERIA APLIKAGARRIA

- 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legea. 120. artikulua: kontsortzio bakoitzeko estatutuetan zein Administrazio Publikoetara atxikitzen denaren adierazi beharra.
- 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen Foru Araua. 23. artikulua: Kontsortzioan dauden udalerriek Estatutuen aldaketa onartu beharra izatea.
- Euskadiko Toki Erakundeen, 2/2016 Legea. 105. artikulua: araubide aplikagarria.
- 7/1985 Toki Araubidearen Legea. 44. artikulua: estatutuek eta aldaketen onespena onartzeko prozedura.

Horren ondorioz, Alkateak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio. Onartzeko gehinego absolutua behar da (7/1985 Legearen 47,3b) artikulua):

Lehenik. Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren estatutuen aldaketa onartzea, jasota gera dadin zein Administrazioetara atxikita geratuko den, hau da:

3. Artikulua: Nortasuna eta gaitasun juridikoa.

1.- Kontsortzioak berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa bere helburuak betetzeko.

2.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120 artikuluan ezarritakoaren xedeetarako, kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxekita geratzen da. Foru arauak atxikitze horren edukia eta norainokoa zehaztuko du.

Bigarren. Erabaki honen berri Gipuzkoako Ur Kontsortzioari ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

4.- MOZIOA. Sozialista udal taldeak aurkeztutako mozioa elikagaien bankuari buruz.

Alkate jaunak, Santi Urdampilleta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) jaunari hitza eman dio eta honek ondorengo mozioa irakurri du:

“MOCION QUE PRESENTA EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA RELATIVA AL BANCO DE ALIMENTOS Y AL APROVECHAMIENTO DE ALIMENTOS APTOS PARA EL CONSUMO Y DESCARTADOS PARA LA VENTA.

Exposición de motivos.

El Banco de Alimentos de Gipuzkoa, como ONG tiene como finalidad la aportación de alimentos a las familias que lo necesitan y para ello se apoya en asociaciones benéficas locales.

Como organización no gubernamental ofrecen diversos servicios a la ciudadanía y consideramos que nuestro municipio debe constituirse en un agente activo de solidaridad con aquellas personas y familias que peor lo

están pasando, como consecuencia de la crisis en la que nos hemos visto inmersos desde hace años.

Si bien algunos datos macroeconómicos pueden ser a día de hoy positivos, también es cierto que la realidad se obstina en hacernos ver que esos datos no tienen el mismo reflejo en la situación laboral de muchas personas, ni en la economía familiar de la ciudadanía.

Es por eso que lamentablemente muchas organizaciones y asociaciones similares al Banco de Alimentos de Gipuzkoa, que tienen como objetivo la aportación de alimentos a las familias que lo necesitan, colaborando con las asociaciones locales, siguen siendo no sólo necesarias sino que se hacen imprescindibles y por ello es necesario concienciar desde el Ayuntamiento a la ciudadanía sobre el principio básico de la solidaridad.

Resulta también imprescindible un compromiso municipal para involucrarse activamente en campañas educativas y de concienciación sobre el consumo responsable de alimentos.

Además el Ayuntamiento debe ser un agente activo en la promoción de la solidaridad a través de la colaboración con el comercio y con la hostelería local, para ayudar en la recogida y el aprovechamiento de los alimentos que siendo aptos para el consumo, se descartan para la venta.

Por todo ello, se somete a la aprobación del Ayuntamiento en Pleno la siguiente

MOCIÓN

.- El Ayuntamiento se compromete a involucrarse activamente en campañas educativas y de concienciación sobre el consumo responsable de alimentos.

.- El Ayuntamiento se compromete a colaborar con el Banco de Alimentos y a trabajar conjuntamente para ampliar dicha colaboración al comercio local y a la hostelería de nuestro municipio para la recogida y el aprovechamiento de los alimentos aptos para el consumo, pero descartados para su venta.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da mozioa.

5.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2016ko azaroaren 24tik 2016ko abenduaren 17ra bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzero eman dira 2016ko azaroaren 24tik 2016ko abenduaren 17ra bitarte emandako Ebazpenak.

PREMIAZKO PUNTUA

Alkate jaunak proposatu du, 2016-02-04an Udalbatza Osoak hartutako erabakia etetea, premiazko puntu modura tratatzea proposamenen arrazoitzen denagatik.

Bozketa eginda, aho batez eta bide batez legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da aipatutako puntua premiazko modura tratatzea.

Alkate jaunak disolbatze prozesuan dagoen Beasain Lantzen, S.A.U. likidadorearen proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 2016-02-04an udalbatza osoak hartutako erabakia etetea.

AURREKARIAK

1.- kontuan izanik, 2015-12-22an BEASAIN LANTZEN, S.A.ren Batzorde Errektoreak hartutako erabakia Soziedadea disolbatzeari buruz eta Foru Ogasunari egindako hainbat kontsulten erantzuna izan zela disolbatzearen eragin ekonomikoa eskasa izango zela, deduzitutako BEZren kuoten erregularizazioa aplikatu behar ez zelako, kiroldegia eta Loinatz futbol Zelaia eraikitzearen ondorioz.

2.- 2016-02-04an Udalbatza Osoak ondorengo erabakia hartu zuen:

“Lehenik. INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS CUATRO, S.L.rekin Beasaingo Antzizar kiroldegiko kudeaketa osoa emateko kontratua, Beasaingo Kirol Fundazio Publikoari lagatzea, Fundazio horren Estatutuetako 4. artikuluan

aurreikusitako eskumenen eskualdaketa eginez, aurrerantzean Beasain Lantzen, S.A.ren posizioan subrogatu ahal izateko.

Bigarren. Erabaki honen berri Beasaingo Kirol Fundazio Publikoari eta INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L.ri ematea, adieraziz hamabost eguneko epean idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, beraien defentsarako bidezkoak diren adierazpenak egin ditzaten.

Hirugarren. Alegaziorik aurkeztzen ez bada, ulertuko da tazituki onartzen dela jakinarazitakoa eta erabakia behin betikoa izatera pasatuko da, kontratatzaileentzat ondorio hauekin:

1.- Kontratuaren nobazioa burutuko da, bi aldeek sinatu behar dutelarik (Fundazio Publikoa eta enpresa) eta horretarako INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L. berme berria aurkeztuko du bere eginkizunak beteko titula bermatzeko Fundazioaren aurrean. Bide batez, bere garaian Beasain Lantzen, S.A.ren aurrean aurkeztutaka bueltatuko zaio.

2.- Fundazioko organo gobernua hartutako erabakien ondorioz sortutako gastuak eta egin beharreko ordainketak erabaki hau behin betikoa izatera pasatzen denetik, Fundazioaren kontura izango dira, sinatutako kontratuaren arabera kiroldegia kudeatzen duen enpresarenak ez badira behintzat.”

3.- Interesatuei erabakia jakinarazi ondoren, ez zen alegaziorik aurkeztu horretarako emandako epean eta erabakia behin betiko izatera pasatu zen. INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L.ek BEASAINGO KIROL FUNDAZIO PUBLIKOAREN alde abala (67.259,12 €) aurkeztu eta gero, 2016-05-04ko datarekin bi entitateen arteko kontratua sinatu zen, Antzizar kiroldegiaren kudeaketa osoa emateko.

4.- Baina, geroztik Foru Ogasunak BEASAIN LANTZEN, S.A., soziedadearen espediente eta disolbatze aukera berraztertu eta gero, Udalarekin harremanetan jarri zen, arestian esandakoa deuseztatuz eta adieraziz gaur egun disolbatzeak eskatuko lukeela Foru Ogasunari BEZren inguruko kuotak erregularizatzea, 276.026,76 €ko kopuruan.

5.- Foru entitatearen irizpide-aldaketak suposatzen duen esfortzu ekonomikoa dela eta, entitate horrek berak Udalari proposatzen dio “likidatze prozesu” egungo egoera mantentzea, behin betiko likidazioa kaltegarria izaten ez den arte. Horrek eskatzen du Soziedadea zergapetu modura mantentzea eta 3. puntutan aipatutako kontratuaren indarraldia denboraldi baterako etetea.

Aipatutako arrazoiengatik, 2016-02-04ko datan zegoen egoera mantentzeko dagoen udal interes publikoa dela, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten zaio:

Lehenik. 2016-02-04ko udalbatzako erabakia etetea eta horren ondorioz BEASAINGO KIROL FUNDAZIO PUBLIKOAREN eta INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L.ren arte 2016-05-04an sinatutako kontratuaren eragina ere bai, Beasain Lantzen, S.A.U. Soziedadea behin betiko disolbatu arte. Horren ondorioa ondorengoa da: kontratistak bere betebeharrak “BEASAIN LANTZEN, S.A.U.EN

LIQUIDACIÓN” Soziedadearen aurrean bermatu beharko ditu abal berri bat entregatuz, 2016-05-4ko atzera eragina izango duen dagokion kontratua sinatzeko.”

Bigarren. *Erabaki honen berri BEASAINGO KIROLO FUNDATZIO PUBLIKOARI nahiz INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS CUATRO, S.L.ri ematea, idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar eguneko epean abala entregatu edo, kasua bada, alegazioak aurkeztu ahal izateko.*

Aipatutako epean alegazioak aurkezten ez badira, erabakia behin betikoa izatera pasatuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.